

Donostia, 2019ko urriaren 18a

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

AMARAKO GARAI BATEKO GOBERNU ZIBILAREN ERAIKINAREN GAINEKO KONTROL
MOZIOA

Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramaile Aitzole Aranetak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua jartzen duena aintzakotzat hartu eta AMARAKO GARAI BATEKO GOBERNU ZIBILAREN ERAIKINAREN gaineko KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, UDALBATZAN EZTABAIDATZEKO.

JUSTIFIKAZIOA

Badira urte batzuk Donostian badela mugimendu bat Amaran Gobernu Zibila izan zen eraikina kultur etxe bihurtzeko ari dena. Mugimendu hori handitu egin da azkeneko urteotan, Gobernu Zibila Kultur Etxe elkarte sortu eta haren proposamena sustatzeko egin dituen ekimenei esker.

Hala, Gobernu Zibila Kultur Etxe elkarte bilerak egiten aritu da Udalbatza hau osatzen dugun talde politiko guztiekin, eta, hasiera batean, guztien babesa jaso du haren ekimenak.

Horiek horrela direla, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio akordio bat negoziatu dezala Estatuan hurrena izango den Gobernuarekin, Amaran izan zen Gobernu Zibilaren eraikina hiriarentzat berreskuratu ahal izateko eta hark izango dituen erabilerak Amara auzora bihurtzeko berriz.

Izpta.: Aitzole Araneta,

Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramailea.

